

2020KO UZTAILAREN 2AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA

2020ko uztailaren 2an, 18:08tan, Tolosako udaleko batzar aretoan TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, OLATZ PEON ORMAZABAL Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%31,50): Olatz Peon Ormazabal
ADUNAKO UDALA (%0,76): Josu Amilibia Alsua
ALEGIAKO UDALA (%2,78): M^a Aranzazu Irazusta Etxeberria
ALKIZAKO UDALA (%0,60): Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
ALTZOKO UDALA: (% 0,69): Josu Astrain
AMEZKETAKO UDALA (%1,51): Iñaki Amundarain
ANDOAINGO UDALA (%23,58): Maider Lainez Lazcoz
ASTEASUKO UDALA (%2,47): Aitor Usandizaga
BERROBIKO UDALA (%0,97): David de Miguel Les
IRURAKO UDALA (%3,00): Gorka Murua Makuso
LARRAULGO UDALA (%0,41): Aitor Biestegui Fiallegas
LIZARTZAKO UDALA (%0,97): Iñaki Azpiroz Beldarrain
OREXAKO UDALA (%0,20): Gurutze Etxezabal Iturrioz
ZIZURKILGO UDALA (%4,80): Jose M^a Luengo Zapirain

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,52): Jon Zubizarreta Aldaia
ALBIZTURKO UDALA (%0,50): Iñaki Orbegozo Arrospide
ANOETAKO UDALA (%3,28): Pedro M^a Estanga Lasa
BELAUNTZAKO UDALA (%0,39): Silvia Moneo Cid
ELDUAINGO UDALA (%0,39): Ohiana Amundarain Zubillaga
IBARRAKO UDALA (%6,73): Igor Zapirain
ORENDAINGO UDALA (0,35%): Eneritz Olano Iriarte
BALIARRAINGO UDALA (%0,22): Andoni Olano Manzano
HERNIALDEKO UDALA (%0,50): Aitor Zubillaga Celaya
LEABURUKO UDALA (%0,61): Arkaitz Esnaola
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,79): Bakarne Otegi

GAI ZERRENDIA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrendia:

- 1.- 2020ko maiatzaren 26ko Batzarraren Akta onartzea.
- 2.- Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20200526.016TIK LE20200622.019RA.
- 3.- 2019ko Kontu Orokorra onartzeko proposamena.
- 4.- 2019ko barne kontroleko memoria. Berri ematea.
- 5.- Administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak Estatuko administrazio orokorrareki 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetza hitzarmenekiko atxikimendua eta protokoloa onartzea.

- 6.- Esleipen proposamean: Tolosaldeko Mankomunitateko estatutoak berritzeko esleipen proposamena onartzea.
- 7.- Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan arropa eta berrerabilgarriak diren objektu txikien gaikako bilketa, edukiontziak hornitu, garbitu eta mantentzeko zerbitzua. Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen proposamena onartzea.
- 8.- Kontratazio prozedura: Garbiguetako edukiontzien garraio zerbitzua. Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen proposamena onartzea.
- 9.- Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esku dauden kamioiak ondasun ez erabilgarri gisa aitortzea eta enkantera ateratzeko baldintza pleguak onartzea.
- 10.- Tolosaldeko Mankomunitatearen bulegoen kokaleku berria eta alokairu kontratua onartzea.
- 11.- Berri ematea:
- 11.1 Organikoa eta errefusaren biltetarako albo kargako edukiontzietan pedala ezartea.
 - 11.2 COVID19ak eragin dezakeen osasun alarma egoeraren aurrean zabor bilketa eta edukiontzien garbiketa zerbitzuetarako babes pertsonaleko ekipoen stockaren berri ematea.
- 12.- Galde erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Berastegi, Gaztelu eta Villabonako udaleko gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

BERASTEGIKO UDALA: Ordezkarria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

GAZTELUKO UDALA: Ordezkarria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

VILLABONAKO UDALA: Ordezkarria, Gorka Murua Makuso

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzea jo dute bilerakideek.

Gai zerrenda:

1. 2020ko maiatzaren 26ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenaren berri ematea: LE20200526.016tik LE20200622.019ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakia.

LE20200526.016

LE20200611.017

LE20200612.018

LE20200622.019

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3.- 2019ko Kontu Orokorra onartzeko proposamena.

2020ko maiatzaren hogeitaseiko kontuen batzordean 2019ko kontu orokorren aldeko txostena onartu zen.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta erakusketa publikoan egon dira 2019ko ekainaren 3tik ekainaren 25era bitartean.

Erakusketa publikoko epean ez da erreklamaziorik aurkeztu. Horren ondoren, Batzarrena da 2019ko kontu orokorra onartzeko eskuduntza.

Ondoren laburtzen dira 2019ko datu ekonomiko garrantzitsuenak:

- 2019ko likidazioa Lehendakariaren dekretuz onartu zen 2020ko martxoaren 31an:

GASTU OROKORRETARAKO ALTORTEGI GERAKINA	2.993.451,18€
AURREKONTUKO EMAITZA	80.937,25

-86/2015 Foru Dekretuak (abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena) 47. erregelari arautzen duenaren arabera, Kontu Orokorra osatzen duten dokumentuak daude espedientean:

1. Balantzea
2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
3. Ondare garbiaren aldaketaren egoera orria
4. Diru-fluxuen egoera orria
5. Aurrekontuaren likidazioaren egoera orria
6. Memoria

Hauek guztiak kontutan izanik, proposatzen da 2019ko Kontu orokorra onartzea.

Andoaingo ordezkariak esan du 2019ko lehen seihilabetekoan ez zirenez Mankomunitateko ordezkariak, abstenitu egingo dela.

Bozketa egin dute:

Kontrako botoak ez daude.

Abstentzioak: Andoain, Larraul eta Berrobi.

Aldeko botoak: BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%31,50), ADUNAKO UDALA (%0,76), ALEGIAKO UDALA (%2,78), ALKIZAKO UDALA (%0,60), ALTZOKO UDALA: (%0,69), AMEZKETAKO UDALA (%1,51), ASTEASUKO UDALA (%2,47), BERAESTEGIKO UDALA (1,74), BERROBIKO UDALA (%0,97), IRURAKO UDALA (%3,00), LIZARTZAKO UDALA (%0,97), OREXAKO UDALA (%0,20), VILLABONAKO UDALA (%9,49), ZIZURKILGO UDALA (%4,80)

Proposamena ez da onartu.

4.- 2019ko barne kontroleko memoria. Berri ematea.

2019ko maiatzaren 20an aurkeztu zen Batzarrean 2019ko kontrol finantzieroko plana.

Planean aurkeztutako ekintzak bete ondoren, eta legeak dioen moduan, kontu orokorrarekin batera, plan honek eman duen emaitza aurkezten da bidalitako memorian.

Memoriaren laburpena:

1. Lehenengo zatia: ez dago 2019an zehar kontuhartzailearen erreparorik, beraz, ez dago erreparatuen baten aurrean hartutako erabakirik.
2. Finantza kontrol iraunkorraren arloan, orokorrean, espedienteak oso txukun daude osatuta. Gومendio moduan, kudeaketaren hobekuntzarako planteatzen da:

KONTRATAZIOAN:

-Kontratazioan urteko plana onartzea, eta sistematikoki kontratuak gehitzea plan honi kontratuen epeak hobeto kontrolatu eta lizitazioak epeen barruan ateratzeko.

-Kontratu txiki moduan tramitatzen diren kontratu batzuk, argindarra, telefonoa.. lizitaziora ateratzea.

LANGILEEN KUDEAKETA ARLOAN:

- Soldaten igoerak GAOan argitaratzea.

DIRU SARREREN ARLOAN:

- Udal ekarpenak kalkulatzeko modua 2014tik ez dator bat Estatutoak diotenarekin. Estatutoak egokitu behar dira udal ekarpenak kalkulatzeko erabiltzen den kriterioetara.

5.- Administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin Estatuko Administrazio Orokorrearekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzak hitzarmenarekin atxikimendua eta protokoloa onartzea.

Proposatzen da Administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearekin sinatutako lankidetzak hitzarmen hauekin atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere:

- Estatuko Administrazio Orokorrearekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzak hitzarmenarekin, lehenengo klausularen 2. Atalean ezarritakoari jarrituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzak hitzarmenarekin, lehenengo klausularen 2. Atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.

Tolosaldeko Mankomunitateak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, haren atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenaren jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten Administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatze direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokionez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenaren Gipuzkoako Foru Administrazioarekin ezarritako betebeharrak.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau ESKATZEN DU:

Tolosaldeko Mankomunitatearen atxikimedua, toki erakunde horren ordezkari naizenez, administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako aipatutako hitzarmenekiko. Hain zuzen ere:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzatza hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. Atalean.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzatza hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. Atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hauek dira aipatutako administrazio elektronikoare zerbitzuen katalogoan jasotzen diren irtenbide teknologikoak:
 - Euskal administrazio publikoen komunikazio sarea.
 - Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak kudeatzeko zerbitzuak.
 - Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa (NISAE).
 - Ordainketa pasabidea.

Bozketa egin dute eta aho batez onartu da proposamena.

6.- Esleipen proposamena: Tolosaldeko Mankomunitateko estatutoak berritzeko esleipen proposamena onartzea.

Mankomunitateko teknikariak azalpenak ematen ditu gaiaren inguruan.

Kopuruagatik kontratu txikia izanik 3 aurrekontu eskatu zirela esan du, ATE, CGP eta LKS enpresei. Emandako epean 3 enpresak eskaintzak aurkeztu zituzten eta horiek aztertu ostean kontratua CGP enpresari esleitzea proposatzen da honako arrazoietan oinarrituta:

Lan taldeari dagokionez CGP enpresak beste biek alderatuta taldea osatzen duten pertsonen profilak anitzagoak dira. Gainera kontratua gauzatzeko eskaintzen dituzten orduak gehiago dira. ATE enpresak 57 ordu, LKS enpresak 140 eta CGPk langileen % 30 eko dedikazioa eskaintzen du, guztira, 2304 ordu.

Lanen programa eta metodologiari dagokionez, udal guztiekin banakako bilerak egitea eskaintzen du CGP enpresak, talde lanari garrantzia ematen dio gairen batekin desadostaduna badago irtenbidea bilatzeko. Hasierako informazio bilketa eta bilerei lan denboraren herena eskaintzen die eta beste bi herenak proiektua egin eta gauzatzera. LKS enpresak bi fase bereizten ditu, lehen faseari estatutuak egiteari 4 aste eskaintzen die eta beste fasea estatutuen onarpen prozeduari. Kontutan izanik aurreko legealdian bi estatutu aldaketa tramitatu zirela, behin estatutuak adostu ondoren ez da horren garrantzitsua kontsideratzen tramitazioarena Mankomunitatean ondo ezagutzen baita. ATE enpresak 6 hilabetetan egitean proposatzen du lana. CGP enpresak gainera hobekuntza bezala proposatzen du estatutuen objektua zabaltzen bada giza baliabideen beharren hasierako azterketa egitea.

Ekonomikoki eskaintzak honakoak dira:

ATE 4850 euro.
CGP 10.000 euro.
LKS 13.500 euro.

Ekonomikoki CGPren eskaintza batzbestekotik hurbilena dago. Konklusio gisa proposatzen da Tolosaldeko mankomunitateko estatutoak berritzeko esleipena CGP enpresari egitea.

Lehendakariak hitza hartu du esateko estatutuen aldaketa proiektua egiteko lana kontratatzea erabaki zela, legeak emandako ahalmenen arabera 3 aurrekontu eskatzea erabaki zela eta aurkeztutako eskaintzak mankomunitateko teknikariek aztertu dituztela. Proposamena Teknikoa dela azpimarratu du beraiek ez dutela parte hartu.

Larraulgo ordezkariak aipatu du abstenitu egingo dela nahiz eta legea bete, lehiaketa egin behar zela iruditzen zaiolako.

Alkizako ordezkariak esan du lanaren garapena euskaraz egitea nahi duela, lantzeko materiala euskaraz egotea eta ez dadila itzulpen hutsa izan.

Bozketa egiten dute:

Kontrako botoak ez daude.

Abstentzioak: Andoain, Larraul eta Berrobi.

Aldeko botoak: BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%31,50), ADUNAKO UDALA (%0,76), ALEGIAKO UDALA (%2,78), ALKIZAKO UDALA (%0,60), ALTZOKO UDALA (%0,69), AMEZKETAKO UDALA (%1,51), ASTEASUKO UDALA (%2,47), BERAESTEGIKO UDALA (1,74), BERROBIKO UDALA (%0,97), IRURAKO UDALA (%3,00), LIZARTZAKO UDALA (%0,97), OREXAKO UDALA (%0,20), VILLABONAKO UDALA (%9,49), ZIZURKILGO UDALA (%4,80)

Proposamena ez da onartzen.

7.- Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan arropa eta berrerabilgarriak diren objektu txikien gaikako bilketa, edukiontziak hornitu, garbitu eta mantentzeko zerbitzua. Baldintza Plegu Tekniko eta Administrazioen proposamena onartzea.

Mankomunitateko teknikariak kontratuaren objektuaren inguruko azalpenak ematen ditu.

Ikusirik Zerbitzu teknikoek egindako txostena, non kontratatu nahi den zerbitzuaren alderdi Teknikoak zehazten diren, baita jarduketaren bideragarritasuna eta lizitazioa arautuko duten plegu Teknikoak egin direla.

Kontutan hartuta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore publikoaren Kontratazio legearen 308 eta hurrengo artikulak.

Ikusirik kontratatu nahi den zerbitzuaren balio estimatua estaltzeko aurrekontu kreditua aurreikusi dela urteko ekitaldiko aurrekontuan.

Ikusirik idazkaritzako eta kontu hartzaitzako txostenak.

Ikusirik kontratua arautuko duten plegu ekonomiko administrazio zehatzak.

Ikusirik azaroaren 8ko 9/2017 legea, sektore publikoko kontratazioari buruzkoaren, bigarren xedapen gehigarriaren arabera eta Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen arabera, batzarra dela organo eskuduna,

ERABAKITZEN DA

LEHENA.- Tolosaldeko mankomunitatearen esparruan arropa eta berrerabilgarriak diren objektu txikien gaikako bilketa, edukiontziak hornitu, garbitu eta mantentzeko zerbitzua, prozedura ireki bitartez kontratatzeko espedientea onartzea, prezioa eta epealdia.

BIGARRENA.- Gastua onartzea 2020 ekitaldiko aurrekontuaren 1 0000.227.25.162.10 Kontu sailean.

HIRUGARRENA.- Kontratazio prozedura honen plegu ekonomiko administrazio zehatzak eta Teknikoak onartzea.

LAUGARRENA.- Adjudikazio prozedurari hasiera ematea, prozedura irekiaren bitartez, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hamabost egunetako epean eskaintzak aurkeztu daitezten.

BOSGARRENA.- Lehendakariari eskuordetzea Kontratazio prozedura honen adjudikazio proposamena eta kontratua sinatzeko eskuduntzak.

Bozketa egin dute eta aho batez onartu da proposamena.

8.- Kontratazio prozedura: Garbigunetako edukiontzien garraio zerbitzua. Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen proposamena onartzea.

Mankomunitateko teknikariak kontratuaren objektuaren inguruko azalpenak ematen ditu.

Ikusirik Zerbitzu teknikoek egindako txostena, non kontratatu nahi den zerbitzuaren alderdi Teknikoak zehazten diren, baita jarduketaren bideragarritasuna, lizitazioa arautuko duten plegu Teknikoak egin dira.

Kontutan hartuta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore publikoaren Kontratazio legearen 308 eta hurrengo artikulak.

Ikusirik kontratatu nahi den zerbitzuaren balio estimatua estaltzeko aurrekontu kreditua urteko ekitaldiko aurrekontuan.

Ikusirik idazkaritzako eta kontu hartzailetzako txostenak.

Ikusirik kontratua arautuko duten plegu ekonomiko administratibo zehatzak.

Ikusirik azaroaren 8ko 9/2017 legea, sektore publikoko kontratazioari buruzkoaren, bigarren xedapen gehigarriaren arabera eta Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen arabera, batzarra dela organo eskuduna,

ERABAKITZEN DA

LEHENA.- Tolosaldeko mankomunitateko Garbigunetako edukiontzien garraio zerbitzua, prozedura ireki bitartez kontratatze espedientea onartzea, prezioa eta epealdia.

BIGARRENA.- Gastua onartzea 2020 ekitaldiko aurrekontuaren 1 0001.227.23.162.10 2020; 1 0002.227.23.162.10 2020; 1 0001.227.24.162.10 2020; 1 0002.227.24.162.10 2020; 1 0001.227.28.162.10 2020; 1 0002.227.28.162.10 2020; 1 0001.227.29.162.10 2020; 1 0002.227.29.162.10 2020; 1 0001.227.30.162.10 2020; 1 0002.227.30.162.10 2020; 1 0001.227.31.162.10 2020; 1 0002.227.31.162.10 2020; 1 0001.227.32.162.10 2020; 1 0002.227.32.162.10 2020; 1 0001.227.33.162.10 2020; 1 0002.227.33.162.10 2020 Kontu sailetan.

HIRUGARRENA.- Kontratazio prozedura honen plegu ekonomiko administratibo zehatzak eta Teknikoak onartzea.

LAUGARRENA.- Adjudikazio prozedurari hasiera ematea, prozedura irekiaren bitartez, iragarkia kontratatzailearen profilean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Europako Aldizkari ofizialea argitaratu eta hogeita hamar egunetako epean eskaintzak aurkeztu daitezten.

BOSGARRENA.- Lehendakariari eskuordetzea Kontratazio prozedura honen adjudikazio proposamena eta kontratua sinatzeko eskuduntzak.

Bozketa egin dute eta aho batez onartu da proposamena.

9.- Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esku dauden kamioiak ondasun ez erabilgarri gisa aitortzea eta enkantera ateratzeko baldintza pleguak onartzea.

Mankomunitateko teknikariak gaiaren inguruko azalpenak ematen ditu:

Ikusirik Lehendakariak agindutakoa ondoren zerrendatzen diren ibilgailuak ondasun ez erabilgarri gisa aitortzeko:

Eq	Modelo	Matricula	Km (nov 2019)	VALORACIÓN sin IVA (nov 2019)	Depreciación
1	Recolector carga trasera tipo satellite. Nissan Atleon TK56/3, 5,5Tn, 110CV potencia. Carroceria Minimatic 6, 6m3	7614FWS	400.001	2.600€	-78,00%
2	Recolector carga trasera tipo satellite. Nissan Atleon TK56/3, 5,5Tn, 110CV potencia. Carroceria Minimatic 6, 6m3	3791FXF	411.842	1.250€	-88,50%
3	Recolector carga lateral. Mercedes Benz Axor 2529L, 26Tn y 290CV ppotencia, caja cambios automatica. Carroceria Ros Roca Farid FMO 25, 25m3	2420FYS	527.000	20.000€	-57,87%
4	Recolector carga lateral. Mercedes Benz Axor 2529L, 26Tn y 290CV ppotencia, caja cambios automatica. Carroceria Ros Roca Farid FMO 25, 25m3	2774FYS	604.684	15.450€	-73,93%
5	Recolector carga lateral. Mercedes Benz Axor 2529L, 26Tn y 290CV ppotencia, caja cambios automatica. Carroceria Ros Roca Farid FMO 25, 25m3	2442FYS	413.283	5.000€	-85,74%
6	Recolector carga lateral. Mercedes Benz Axor 2529L, 26Tn y 290CV ppotencia, caja cambios automatica. Carroceria Ros Roca Farid FMO 25, 25m3	4907FZB	566.382	12.500€	-74,05%
10	Recolector carga trasera. Mercedes Benz Axor 2529L, 26 Tn y 290CV potencia, caja de cambios automatica. Carroceria GEESINK GPMIII, 24m3. Grua Eco 80e r2	9078FXM	511.039	12.600€	-73,45%
11	Recolector carga trasera/superior. Mercedes Benz Axor 2529L, 26 Tn y 290CV potencia, caja de cambios automatica. Carroceria GEESINK GPMIII, 24m3. Grua Palfinger Epsilon C70G	4653FYM	569.877	15.500€	-67,71%
14	Remolque triturador ramas. Loma K30HPM	R-4334-BCH			
15	Recolector de carga trasera. Man TGM 18280, 18Tn y 280CV de potencia, caja de cambios automatica. Carroceria Ros	3520HPH	443.658	6.400€	-78.80%

Roca Cross de 16m3.				
---------------------	--	--	--	--

Kontutan hartuta espedientean daudela 2020ko apirilaren 2ko ingurumen teknikariraren txostena non azaltzen den Mankomunitatearenak diren hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuak hondatuak daudela eta balioa galdu dutela, ez direlarik mankomunitatearentzako erabilgarriak, eta horren ondorioz, ondasun ez erabilgarri gisa aitortu eta ondoren saltzeko proposamena egiten dela.

Ikusirik ibilgailuen balorazio tekniko erantsi zaiola espedientean zeinaren arabera ondasunen balioa 91.300 eurotan zehazten den B.E.Z. gabe.

Idazkariatzako txostena eta kontu hartzailetzakoa ikusita, Mankomunitatearen batzarrak ondorengo erabakia hartzen du:

LEHENA.- Ondoren zerrendatzen diren ondasunak ondasun ez erabilgarri aitortzea Mankomunitateko teknikariaren 2020ko apirilaren 2ko txostenean azaldutako arrazoiengatik zeinak idazkaritzako 2020ko ekainaren 11ko txostenean baieztatzen diren eta erabaki honetan jasotzat jotzen direnak dagokion ondorioetarako:

Eq	Modelo	Matricula	Km (nov 2019)	VALORACIÓN sin IVA (nov 2019)	Depreciación
1	Recolector carga trasera tipo satellite. Nissan Atleon TK56/3, 5,5Tn, 110CV potencia. Carroceria Minimatic 6, 6m3	7614FWS	400.001	2.600€	-78,00%
2	Recolector carga trasera tipo satellite. Nissan Atleon TK56/3, 5,5Tn, 110CV potencia. Carroceria Minimatic 6, 6m3	3791FXF	411.842	1.250€	-88,50%
3	Recolector carga lateral. Mercedes Benz Axor 2529L, 26Tn y 290CV ppotencia, caja cambios automatica. Carroceria Ros Roca Farid FMO 25, 25m3	2420FYS	527.000	20.000€	-57,87%
4	Recolector carga lateral. Mercedes Benz Axor 2529L, 26Tn y 290CV ppotencia, caja cambios automatica. Carroceria Ros Roca Farid FMO 25, 25m3	2774FYS	604.684	15.450€	-73,93%
5	Recolector carga lateral. Mercedes Benz Axor 2529L, 26Tn y 290CV ppotencia, caja cambios automatica. Carroceria Ros Roca Farid FMO 25, 25m3	2442FYS	413.283	5.000€	-85,74%
6	Recolector carga lateral. Mercedes Benz Axor 2529L, 26Tn y 290CV ppotencia, caja cambios automatica. Carroceria Ros Roca Farid FMO 25, 25m3	4907FZB	566.382	12.500€	-74,05%
10	Recolector carga trasera. Mercedes Benz Axor 2529L, 26 Tn y 290CV potencia, caja de cambios automatica. Carroceria GEESINK GPMIII, 24m3. Grua Eco 80e r2	9078FXM	511.039	12.600€	-73,45%
11	Recolector carga trasera/superior. Mercedes Benz Axor 2529L, 26 Tn y 290CV potencia, caja de cambios automatica.	4653FYM	569.877	15.500€	-67,71%

	Carroceria GEESINK GPMIII, 24m3. Grua Palfinger Epsilon C70G				
14	Remolque triturador ramas. Loma K30HPM	R-4334-BCH			
15	Recolector de carga trasera. Man TGM 18280, 18Tn y 280CV de potencia, caja de cambios automatica. Carroceria Ros Roca Cross de 16m3.	3520HPH	443.658	6.400€	-78.80%

BIGARRENA.- Ondasunak enkante bitartez saltzeko plegu ekonomiko administratiboak onartzea eta enkanteari hasiera ematea, Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean argitaratuz iragarkia, eskaintzak aurkeztu daitezten 20 naturaleko epean.

HIRUGARRENA.- Lehendakariari eskuordetzea adjudikazio proposamena eta kontratua sinatzeko ahalmena.

Bozketa egin dute eta aho batez onartu da proposamena.

10.- Tolosaldeko Mankomunitatearen bulegoen kokaleku berria eta alokairu kontratua onartzea.

Mankomunitateko teknikariak azaltzen du Mankomunitatearen bulegoa momentu honetan Tolosako udaleko bulego batean kokatuta dagoela behin behineko izaeraz. Mankomunitatea hondakinen bilketa eta garraioaren kontratua dagoen kokalekuan egotea nahi dela Mankomunitatearen kontratu garrantzitsuenari behar bezelako jarraipena egin ahal izateko. Adjudikatzailer berria Alegiako pabilioi batean kokatu da eta horren goiko plantan Mankomunitatearen bulegoa egokitzea proposatzen da, obra eginez, horien prezioa 47.000 eurokoa da (BEZ gabe). 104 metro karratuko bulegoak lirateke, bilera gela txiki batekin.

Alokairu kontratua formalizatzea proposatzen da pabilioiaren jabearekin. Obrak jabeak egin beharko lituzke Mankomunitatearen oniritziarekin eta Alegiko Udalak eman beharreko baimenak eskuratu beharko lituzke Mankomunitateak lokala okupatu aurretik.

Alokairu kontratua 4 urteko epealdiarekin aurreikusten da beste 3 urtez luzagarria. Baldintza bezala jartzen da 4 urte baino lehenago Mankomunitateak alde egin nahiko balu, kalte ordain gisa 4 urteko alokairu guztia ordaindu beharko diola jabeari, honen arrazoia obrak ordaintzean datza.

Obra proiektua egin dauka, urte honen amaierarako ez baditu obrak amaitzen edo Alegiko Udalak ez badio oniritzia ematen Mankomunitateak kontratua amaituko luke kalteordainak ordaindu gabe eta jarraitzea erabakitzen bada jabeak ordaindu beharko lioke Mankomunitateari kalte ordain txiki bat.

Kontratu proposamena gaur bidali zaie Mankomunitateko kideei hori dela eta Larraulgo ordezkariak aipatu du beraiek abstenitu egingo direla.

Bozketa egin dute honako emaitzarekin:

Kontrako botoak ez daude.

Abstentzioak: Andoain, Larraul eta Berrobi.

Aldeko botoak: BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%31,50), ADUNAKO UDALA (%0,76), ALEGIKO UDALA (%2,78), ALKIZAKO UDALA (%0,60), ALTZOKO UDALA: (%0,69), AMEZKETAKO UDALA (%1,51), ASTEASUKO UDALA (%2,47), BERAATEGIKO UDALA (1,74), BERROBIKO UDALA (%0,97), IRURAKO UDALA (%3,00), LIZARTZAKO UDALA (%0,97), OREXAKO UDALA (%0,20), VILLABONAKO UDALA (%9,49), ZIZURKILGO UDALA (%4,80)

Proposamena ez da onartzen.

11.- Berri ematea:

11.1 Organikoa eta errefusaren bilketarako albo kargako edukiontzietan pedala ezartea.

COVID 19aren ondorioz kutsatutako familien hondakinak errefusara bideratu behar zirenez, itxitura sistema elektronikoa duten edukiontzia behar adina alditan erabiltzeko aukera izateko edukiontzia desblokeatu eta irekita mantendu dira. Hala ere, zenbait herritan zabor poltsak lurrean utzi dituzte herritarrek. Edukiontzia pedalak ez zituzten herritan pedalak jartzea pentsatu da, herritarrek edukiontzia ukitu gabe hondakinak edukiontzi barrura bota ahal izateko eta hondakin ahalik eta gutxien egoteko kalean. Hori bideratzeko kontratu ireki super sinplifikatu bat bideratu da.

11.2 COVID19ak eragin dezakeen osasun alarma egoeraren aurrean zabor bilketa eta edukiontzien garbiketa zerbitzuetarako babes pertsonaleko ekipoen stockaren berri ematea.

Mankomunitateak GHKren bitartez stock-a dauka udazkenerako; 3000 maskarilla, 500 buzo, 260 betaurreko eta 3000 eskularru. Kosteak GHK kibratutakoa izango da, herriren batek behar balitu Mankomunitatean egongo dira bilduta.

12.- Galde erreguak.

1) Lehendakariak esan die Batzarkideei, Mankomunitatearen jarraipen bileretan orain arte 3 batzarkide elkartzeko direla Mankomunitateko teknikariarekin eta indendentietako batek eskaera egin duela jarraipen bilera horietan parte hartzeko.

Adunako udaleko ordezkariak esan du jarraipen bilera horiek diseinatu ziren moduan egunerokotasunean hartu beharreko erabakien berri eman eta jarraipena egiteko zirela, asteroko bilerak lehendakari eta lehendakari ordeak teknikariarekin bilduz. Hasten bagera alderdi desberdinak egon behar dutela ordezkari bilera horietan, horretarako badagoela beste organo bat dela Batzorde Iraunkorra.

Lehendakariak esan dio jarraipen bileraren helburu nagusia dela ahalik eta adostasun gehiena izatea erabaki beharreko gaietan. PSOE badago jarraipen bileran ba baita ere indendentietako bat. Jarraipen bilera hauek Batzorde Iraunkorra baino arinagoak eta hobeagoak direla egunerokotasuneko gaien inguruan adostasun ahalik eta zabalena bilatzeko.

Alkizako ordezkariak esan du aurreko batzarrean altxortegi gerakinaren gaia atera zenean nolabait gaia landuta zetoze aurretik iruditu zitzaizela eta berak ere gaien inguruko informazioa eduki nahi duela, beraien iritzia, indendentia, ere emanez eta jarraipen bilera horietan parte hartzeko eskaera luzatu zizkion Lehendakariari.

Batzarkideak gaiaren inguruan ideiak partekatzen jardun dira baino ez dira adostasunera iristen jarraipen bileren osaketaren inguruan ezta Batzorde iraunkorra den horretarako organo egokiena.

2) Andoingo ordezkariak altxortegi gerakinaren gaiaren inguruko informazioa eskatu du.

Lehendakariak esan dio proposamena aztertzen ari direla mankomunitateko teknikariak, hasieran planteatutako moduan ezin zela gauzatu baino gaia aztertzen ari direla.

Alkizako ordezkariak esan du beren udaleko idazkari kontu hartzaileak proposatu zuela UFF-a % 20 jeitxiko dutenez, Tolosaldeko Mankomunitatearen kuota % 20 gutxitzea, gero udal bakoitzak kopuru horiek nahi dutenerako erabil dezaten.

Mankomunitateko teknikariak esan du Kontu hartzailea Foru ogasuneko teknikariekin harremanetan jarrita aztertu dutela altxortegi gerakina herriei banatzeko modua. Sarrerak ezin direla gutxitu plan ekonomiko finantzarioa ez delako beteko modu horretan baino 4. Kapituloan gastua sortu, altxortegiarekin finantziatuz eta horrela gastu hori ez dela kontutan hartuko aurrekontuaren egonkortasuna adierazten duten arauak aztertzeko garaian. Idazkariak aipatu du agian modu horrek ere baduela arazoren bat eta teknikoki gaia gehiago aztertuko dutela.

Alkizako ordezkariak gaineratu du Mankomunitatearen hondakinen bilketaren tarifa bakarra jartzeko gaia ere aztertu beharko litzatekela.

Adunako udaleko ordezkariak esan dio tarifa bakarraren gaiarekin ez dagoela ados bere herritarrek egiten duten esfortzua tarifyan islatu behar dela. Hortaz gain, altxortegiaren gaian ere, gerakina basea egiteko gordetzen ari dela Mankomunitatea eta bere proposamena dela ez erabiltzea beste gauza batzutarako, herriren batek etorritako krisialdi honi aurre egiteko dirua behar badu Mankomunitateak behar duten herriei laguntzeko prest dagoela baino gero diru kopuru horiek bueltatzeko baldintzarekin.

Lehendakariak erantzun dio ez zaiola modu hori gustatzen, ulertezina egiten zaiola herri askotan, sortutako ez ohiko egoera honi aurre egiteko laguntzak bideratzeko ahaleginak egiten egotea eta Mankomunitatea guzti horretatik at gelditzea daukan gerakinarekin. Mankomunitatea ez dela dirua aurrezteko entitate bat eta ez ohiko egoera honi aurre egiteko eskualdeko ikuspuntua eduki behar dela.

Gaiaren inguruan ikuspuntu ezberdinak agertzen jarraitu dute baino ez dira inongo adostasunera iritsi.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zortziak eta hamabost minutuak direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA